

»Biamun goizian, lenbiziko trenian Donostia jo omen zuan berriz, apaiz orregana. Ta Don Tomas orren bidez sartu omen zan Billabonako *Fraisoron*, biar zian paperak Diputaziuan einda noski.

»Ni Manuel Garate, or jayua naiz, *Fraisoron* jayua. Gero, ortik, zortzi euneko aurra, Aretxabaletako Arkarasora eaman niñuen ni. Andik, urrena, umia bere amai entreatzeko ordena eman zitakonean Arkarasoko Timoteo Izurrategiri, pena galantakin entreatu omen niñun ni Zumaiko Sagarbiden! Onak erakusten du aittonan beste pekatua. Auxen da nik oaindik eiten deteta galdea:

«— *Bi milla pezeta zeatik eskatu zitzaizkon ni jaso niñun gizon ari? Añ gogor gañea! Juzkaduan parte emango zuala amenazua emanda!... Ee, zeatik eskatu zitzaizkon?...*

»Esan bezala, bere semetzat ezagutu nayan eaman niñun ni Aretxabaletako Arkarasoko Timoteo Izurrategi orrek, baña, zer pasa zan? Nere ama zana agertu zitakola aguazillakin, ta nola aguazilla izaten dan testigu doblia, Timoteok egin biar izan niñun entregatu. Baiña, nere ama ez omen zan nere billa bere gogoz jun, aittonak artara beartuta baizik. Ark neri tokatzen zitatan dirua nai zuan ordune! Ez besterik!

»Aren arrazoyak erakusten du earki. Ni, artian aurra, Timoteok Sagarbiden entregatu niñun eunian, aittona zanak, lenguak lengo, ala esan omen zion gizonai:

«— Umia ola entregatze al da?

«— Ze nai dezu nik eittia! Nik artu nunian txikiua zan! Pena earra ematen dit, baña, ementxen lagatzeizuet nik; zuena da ta.

»Eta nere aittonan erantzuna au izan zuan gizon arek:

«— Onen bi milla pezeta nun dia?

## «URTEBETE

**OSUAN** egon zan nere ama zana, bai! Sagarbideko bodegan, lurpian giltzapetua. Gaur ikusiko banu bezala dakat goguan».



Manuel Garate Urbistondo, ume txikia zela, bere ama Josefa Garate Urbistondoren besoetan.

»Eta Timoteok esan omen zakon:  
«— Nik ez dakit. Nik Diputaziotik artu nuan umi au, eta baldin bada ere, Diputaziuan izango da dirua.

»Eta gure aittonak berrize:

«— Joko det nik Diputaziotik, ta an ezpadau dirua, juzkaduan sartuko zattut.

»Eta Timoteok erantzuna:

«— Bai, sartu, nai badezu Zumayan, nai badezu Bergaran, nai badezu Donostiyan... baña len esan dizut, eta berrero esateizut, nik ez det diru orrenik, nik ez det kobratu umi onen izenian, eta nei eztaizu kenduko.

**AITONAK ILLOBAN DIRUA JASO**

Biamunian jun da Donostiara nere aitton ori, Inazio Garate ori; an ein du nere diru orren galdia; ta baietz, an zeola, baiña inposiblia zala ematia. Alaz ta guzize erregutu ein omen zuan, pobrezan zegola, ta beai emateko diru ura. Azkenian eman ein zitzakon dirua; baiña, nere ama zana Joxepak eta bere seme Manuelek, nik, Sagarbiden babesa izateko kondiziyuan, eta ni ezkontzen banitzan, eskriturak nere eskura jartzeko kondiziyuan.

»Baiña, aittonak nere diruak bereganatu zittuanian, zer ein zuan gero? Bere semiai basarria saldu amar milla durotan, nik ogeitairu urte nitula! Legez kontra, jakina. Ni, artian ezer enekilla, ez diru ta ez etxe geatu nitzan!

»Ogeitamalau urtetan ikasi nuan nik Sagarbiden zer deretxo nauzkan. Ondarrabiyan morroi neguala, Aretxabaletako Arkarasoa bixita eittia pentsatu nuan, neu azitzen euki

niñuen gurasoei, ta an esan zian Timoteok:

«— Gauza bat galdetu beiaizut, Manuel. Zure aittona nei kendu naian ibilli zan 2.000 pezeta ayek entreatu al zittuen, eo ze in zuen arekin?

«— Ez, nei ez dit iñok ezer esan izandu!

«— Eske arek nai zittun diru ayek kobratu, baña, zu ezkontzian Diputazioan kobratzeko diruak zian ayek.

«— Baa, ezkondu... Oandikan ez do beintzat presikan da, ikusiko deu, iñoiz ezkontze bagea...

»Ala, ura pasa zan, ta ni ezkondu nitzanian, nola Diputazioko semia nitzan, an ezkontzeko kapretxua nuanez, ango kapilla Arantzazun ezkondu nitzan, ta orduan Madre Superiorrak ala esan zian, erderaz, jakiña:

«— Jolin, Manuel, menuda suerte, ¿no? Se casa y encima cobra 2.000 pesetas.

«— Pero cómo 2.000 pesetas?

«— Sí, sí, le corresponden. Usted va a la Diputación a donde Andres, y allí le darán las 2.000 ptas. que le corresponden.

»Biamonian, Diputaziora jo degu andria ta biyok, eta antxe zegoen papera. Nere jaiotzakoa. Aurrena nere ama zanaren izena jartze zuan: *Josefa Garate Urbistondo*; urrena neri: *Manuel Maria Garate Urbistondo*, eta irugarrena, jakiña, *Don Tomas Arteaga* apaizak nere aitatasuna ukatzian, tutore intzana: *Inazio Garate Lizaso*, nere aittona.

»Nik orduan ikasi nuan nere 2.000 pezeta aspaldi kobratuak zaskala

nere aittona zanak, baña kondizio batekin: nik eta nere ama zanak Sagarbiden babesa izateko kondiziyuan, eta ni ezkontzen banitzan, etxiaren jabe ni izateko kondiziyuan. Zeatik, garai artan 2.000 pezeta diru asko baitzan. Ni ordia, ez diru ta ez etxe geatu nitzan,

## AMA BURUTIK NAHASI

Jakiña, aittona zanagandik zetozen diru zikiñak ziala merio ikusitakoak ikusita, nere ama zana gaixua burutik endreatzen joan zan pixkana pixkana. Ni izanduta gero, neskame ibilli omen zan urte batzutan, baiña burutik nasten asi zanian, etxera ekarri zuten atzera. Ezta arritzekua eta, egia da ori: burutik endreatua zebillela. Baiña, earki moldatu zuten gaixua, Sagarbideko bodegan euki zutenian!

»Bai, orik egik dia! Urtebete osuan egon zan nere ama zana, bai! Sagarbideko bodegan, lurpian giltzapetua. Gaur ikusiko banu bezala dakat goguan, nola egote zan, alki xar batian, kupel baten ondoan. Andik Aramaioko Santa Agedara eaman eta ogei eunea il tzan. Goguan dakat baita, entiarruko nola jantzi niñuen, jendiaren aurrean itxurak eiteko, elegante demoniyo, blusa gisako jantzi beltz batekin.

»Nik orduan, gutxi gorabera, sei bat urte nazkan, eta goguan dazkaten are azkenengo itzak abek dira, nere presentzian esan zittunak. Anai Joxe Benturak esan zion olaxe, giltzapetua zagon bodegatik ateata, danak sukaldean bazkaltzen ai giñala:

«— Aizan, Joxepa, biyar Donostira jun biarko iñeu.


«— Bai zea!

«— Bai, jun bieñeu bai. Ire nobiyua eo aixkirea or omen da...

«— Jaa ja ja!... Banetxeukan gogua aretxekin itzeiteko! Aittu biar zizkiyak earrak! Jaa Jaa Jaa!...

## «OGEITA ZAZPI

urteko alaba billotzik eta aita bizkarretik bera joka ikusita nago ni beñi baño geyagotan».



Inazio Garate Lizaso, Manuelen Garteren aitona zena.

«*Olako parre algarada zea bat ein zuan, baña geyo itzik etzun in arek. Ori, jakiña, engañatzeatik esan zion anayak. Santa Agedara eaman biar zuela nola esango zion ba, nere bistan gañea! Uraxe izan tzan nik nere ama zana bizik ikusi nuen azkenengo aldia. Andik ogei egunea il tzan gaixua Santa Agedan. Pentsau etxian nola tratatua eongo zan! Pentsau, ogeita zazpi urterako, emakumia ze kasuta allegau zan!*

»Naikoa billurra izate zuten etxian, lendik ere, ni gauza geyegi ikusten ai ote nintzana. Pentsa! neuk emandako saarrak, neuk emandako aranak, jaten zituari sarritan eta, leyotik eta ematen nizkanian. Eskatu iten zituari eta, nik eman! Eta deskuiduan amona zana akordatzen bazan, ala esate zian:

«— Aaaarray ia! Kotxiño koño! Uni jaten ematen ayaz, uni jaten ematen!... Jexuxa! Jexuxa! —aizpa gaztenai deika— aur au eaman tzan emendikan, Puntaneota (leku izena) eo noabatt eaman tzan emendikan.

»Ala, aman bistatik fueratu iten niñuen beti, amagandik apartatu beti. Nik ordia, an etxe jiran nenbillela, ikusi iten bai nun noiznai zumiakin nola jotzen zuan! Aittak beak jotze zuan. Garbitasunike etzuan izaten gaxuak! Giltzapetua bere amorrazio artan arropa guzik txikituta eukitze zittun askotan. Ogeita zazpi urteko alaba billotzik eta aita bizkarretik bera joka ikusita nago ni beñi baño geyagotan. Pentsa zazu zer izango dan ala tratatzen ikusitako emakumia zure ama propiyua dala jakitia! Pentsa zazu!...

»Nik esaten deana au da: nungo tribunalak kastigau zuan ura? Nungo juizioan atea zitzakon kastigu ura? Aittonak beak pentsatu, beak eñ, beak sortu alaba, beagatik aurdun gerazi, beagatik illazi!... Aittona zanagatik dena! Ura izan zan lapurra eta kriminala, ura! Eta beste amaika senide ari lagundu ziotenak! Ayek danak dia errudunak, ayek danak! Ta ez nere ama zana gaxua! Bakarrik ezte bereixten! Gaztenak, amar urte besterik etzuan, izeba Jexuxak. Baiña andik gorakuak zeuden bestiak danak e! Oain etxian daguan osaba Joxemaik beak ogeitabi urte zaskan orduan! Ez al zan Xaarbidekua orduan!?